



Gaur era sinbolikoan errekuperatu ditugu Eusko Jaurlaritzak -Osakidetza- duela hiru urte "gauekotasun eta maltzurkeriaz" Asuncion klinika pribatuari emateko guri kendutako espezialitate guztiak.

Gaur, berriz ere, kalera irten behar izan dugu gure borondatea adierazteko: ez gaudela prest urrats bat bera ere atzera emateko, eta beharrezko mobilizazio guztiarekin jarraitzeko asmoa dugula gure legezko eskaerak lortu arte.

Hiru urte pasatxo daramagu. Legez dagokiguna eskatzen dugu eta denbora honetan, Eusko Jaurlaritzako osasun arduradunekin izandako bileretan, Lehen PSOE eta orain EAJ, entzun gaitzaten besterik ez dugu lortu. Ez dugu, ordea, TOPA bezala, arazo honi irtenbidea emango dionaren aztarnarik sumatu.

Baina Jaurlaritzaren jarrera hau bera da Tolosaldeako 30 alkateek jasotzen dutena, izan ere, edo bilerak atzeratzen dituzte, edo gaia aztertuko duten promesak egiten dituzte, promesa betegabeak hain zuzen.

Joan den apirilaren 10ean, PSOE eta EAJren aurkako botoak izan arren, Gipuzkoako Batzar Orokorrak honako mozio hau onartu zuten gehiengoarekin:

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari dei egiten diote urtebeteko epean Tolosaldean Osakidetzaren sare publikoko eskualdeko ospitale bat, berma dezan.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari dei egiten diote, 2011ko abendura arte eskualdeko beharrak asetzen zituzten espezialitateak mantendu edo berreskuratzeko.

Orain, beharrezko ikusten dugu koordinadora honetatik, Eusko Jaurlaritzari exijitzea lan mahai bat osatzeko. Lan mahai horretan Osakidetza, Asuncion klinika pribatuko eta osakidetzako langileen ordezkariak, Tolosaldeako alkateak eta TOPA beharrezko pausoak aztertuko lituzkete gure helburuak lortzeko:

1. Klinikaren publikazioa, eskubidez dagokigun kudeaketa publikodun ospitalea bilakatuz.
2. Gure anbulatorioan espezialitate guztiak lortzea, kendutako haiek berreskuratuz.



Hori guztia babesteko beste keinu bat bezala antolatu da sinadura bilketa Tolosaldean. Horretarako mahaik jarri ditugu Tolosan eta ondoren ondoko herrietan. Beraz, zuen parte-hartzea eskatzen dugu ekimen honetan.

Azkenik, OSASUN PUBLIKO ETA UNIBERTSAL baten aldeko mobilizazio prozesu honekin amaitzeko, egun hauetan Tolosaldeako udaletan mozio bat aurkeztuko dugu alderdi politiko guztien babesa bilatuz gure aldarrikapena babesteko, eta eurak gonbidatzen ditugu datorren ekainaren 7an TOPAk antolatutako manifestazioan parte hartzera. Manifestazio hori lehen aipatu dugun lan mahaia osatzearen alde egingo da.

**EZTA PAUSO BAT BERA ERE ATZERA!
OSASUNA EZ DAGO SALGAI, DEFENDATU EGITEN DA!
DENOK ELKARREKIN BADEZAKEGU!**